

XXI. Mendeko Akordioa:
Bai Euskarari

Baietzaren zergatia

XXI. Mendeko Akordioaren sinatzaileek badituzte hamaika arrazoi 'euskarari bai' esateko

Euskal Herriko gizarteko sektore guztietako ordezkariak euskarari «bai» esan zioten atzo, XXI. Mendeko Akordioa sinatuz. Horren ondotik, baietzaren zergatia azaldu zuten EGUNKARIAko kazetarien grabagailuen aitzinean. Hamaika arrazoi eman zituzten *euskarari bai* esateko.

A. Barandiaran-J.K. Lakasta/Iruñea

Juan Jose Arrieta ♦ Euskadiko Kutxako zuzendari nagusia.

«Euskara gure lan tresna bilakatu nahi dugu»

«Gure erakundeak Euskadiko Kutxa du izena, eta izen hori duen erakunde batentzat euskara, jakina, oso gai garrantzitsua da. Euskadiko Kutxa enpresa handi bilakatzen ari da, baina erroei eutsi nahi diegu. Euskara lan tresna bilakatu nahi dugu».

Juan Maria Otaegi ♦ MCCko Kongresuko lehendakaria

«Eguneroko jardunean aritzea da xedea eta bidea»

«Gure ideia da prozesuari laguntza guztia ematea, eta horretara etorri gara Iruñera. Kooperatiban beti egon gara euskararen alde, eta enpresa mailan bagabiltza gauzak egiten. Badugu gure taldea euskara bultzatu eta indartzeko, eta, azken batean, eguneroko jardunean euskaraz hitz egiteko. Hori da helburua eta bidea».

Javier Martinez de Abando ♦ Euskadiko Sozietate Laboralen Elkarteko lehendakariordea.

«Guretzako oso akordio garrantzitsua da»

«Orain arte euskarari buruz gutxi egin dugu. Baina konturatu gara arazo hau oso larria dela. Bizkaian eta Gipuzkoan asko hitz egiten dute euskaraz, eta jendeak presioa egiten du, eta presio horri erantzuna eman diogu. Horregatik parte hartu dugu akordioan, norabide horretan aurrera egiteko. Oso akordio garrantzitsua da guretzako».

Jose Elorrieta ♦ ELAko idazkari nagusia.

«Gure etorkizuna herri moduan euskarari lotuta dago»

«Gure etorkizuna herri gisa euskarari lotuta dago, dudarik gabe. Gainera, kanpaina hau kasualitatez izan bada ere, oso une egokian heldu da. Gaur egun itxaropen egoera batean bizi gara Euskal Herrian, eta akordio hau horren adibide ona da: euskaldunok biltzen gara oso lan garrantzitsua egiteko».



Luis Uranga Realeko lehendakaria CCOOko Santiago Bengoa eta Jesus Garatearekin mintzatzen.

OSKAR MONTERO

Rafa Diez ♦ LABeko idazkari nagusia

«Euskararen erronka 26tik aurrera hasiko da»

«Euskarari lan munduan izugarritzko bultzada eman behar zaio, hemen sartu gabe dagoelako. Bai enpresariak, bai sindikatuek, bai langileek orokorki izugarritzko ahaleginak egin behar ditugu XXI. mende honen barruan euskara kaleetan ez ezik lan munduan ere normaltasunez erabiltzeko. Publikoki esan nahi dugu erronka 26tik aurrera hasten dela. Jende askok sinatu dugu akordioa, eta izan daiteke historikoa, baina sinatzeaz gain konpromisoa eta ahalegin bereziak egin beharko genituzke, bestela iruzur handia izango litzateke hau».

Santiago Bengoa ♦ Euskadiko CCOOko idazkari nagusia.

«Euskarak gizartea aberasten du»

«Gizartea aberatsa izatea nahi dugu, bai kulturaren alorrean bai eta ekonomiaren alorrean ere. Euskararen alde gure esku dagoen guztia egiten ez badugu, gure atzetik datozenek ez digute barakatuko. Bestalde, gizarteko pluraltasuna landu behar dugu euskararen alde. Hori egiten badugu, ez da borroka tresna izango, baizik eta komunikazio tresna, eta komunikazioaren bitartez lor daiteke gizarteak aurrera egitea».

Jose Maria Arrate ♦ Athleticen presidentea.

«Euskara gure sustraia da, gure nortasuna»

«Nire etxean erdara baino lehenago ikasi nuen euskara. Triste egon naiz, ahaztu egin zaidalako. Baina orain ikasten ari naiz. Gure herrian euskara oso inportantea da, gure sustraia da, gure pertsonalitatea. Horregatik ni neu euskararen alde nago, eta Athleticen presidentea modura ere bai. Akordioak gizartearen kontzientzia aldatzeko balioko duela uste dut».

Luis Uranga ♦ Real Sociadadeko lehendakaria

«Gaurtik aurrera zer edo zer aldatuko da euskararen munduan»

«Kontseiluak azaldu zigunetik zer zen egitasmoa, iruditu zitzaigun Realak, beti sentiberatasun berezia izan duenez euskararekin, hor egon behar zuela, eta ez genuen asko pentsatu behar izan. Guk jada bide handia egin dugu euskararen alde, baina dudarik ez dago gaurtik aurrera zer edo zer aldatuko dela euskararen munduan, eta hizkuntza garatu, normaldu eta bultzatzeko neurri zehatzak hartu behar dituen jendea egongo dela hemendik aurrera horretan buru-belarri sartuta».

Javier Miranda ♦ Osasunako lehendakaria

«Ez nuke nahi inork kutsu politikoa ematea honi»

«Iruditzen zaigu *bai* esan behar diogula euskarari. Sadar eskaini dugu nahi duena joan dadin eta nahi ez duena, ba ez. Gainera, hartu ditugu zenbait neurri jada. Ez nuke nahi inork kutsu politikoa ikustea hemen, batzuetan ematen badiote ere. Orain arte, Euskal Herrian izan ditugun arazoekin, bazirudien euskara politizatuta zegoela, baina euskara hizkuntza bat da, gurea gainera, eta babesa eman behar zaio».

Jean Louis Harinordoki ♦ Hemeneko zuzendaria

«Indarririk bereziena mintzatzean egin behar da, harremanetan»

«Hemen-en helburua, lehenik, Ipar Euskal Herrian enpleguak sortzen laguntzea da, eta euskaldunentzat, ahalaz. Ez da dudarik euskara dela erabili dugun hizkuntza, eta guretzako gauza normala da *bai euskarari* erraitea. Mariano Izetak erran du biziki ongi zer egin behar den hau paperetan bakarrik geldu ez dadin: 'Bereziki mintza zaitzete'. Ez dut guttietsi nahi idatzia, baina indarririk bereziena mintzatzean da, eta bereziki bilkura guztietan, telefonoz, harremanak egitea nehondik ahalean».

Carlos Bastero ♦ Nafarroako Unibertsitateko Donostiako

Ingeniaritza Eskolako dekanoa

«Unibertsitateak badu kezka euskarari eusteko»

«Unibertsitateak berak euskarari eusteko duen kezka da akordio hau sinatzera bultzatu gaituen arrazoi nagusia. Ingeniaritza Eskolan bertan badira euskaraz ematen ditugun ikasgaiak, eta badugu kezka berezia ikasgela hauetan ikasten ari diren ingeniariarentzat hizkera teknikoak ere edukitzeko. Eskolan bertan lerro lebiduna oso garestia izango litzateke, baina gure kezka da ikasgai hauei eustea, eta, pixkanaka, euskara menderatzen dutenei bide ematea ikasgaiak euskaraz izateko».

Juan Apeztexea ♦ Iruñeko Gotzaingoko Euskal Pastoralzakoa

«Elizak horrelako ekimenak behar ditu»

«Gure Elizak behar ditu horrelako ekimenak. Gurean badira batzuk oso sentiberak, baina beste batzuk ez dira horrenbeste, eta arazoak sortzen dira. Dena dela, urratsak egiten ari gara, eta gehiago egingo dugu. Duela 20 urte Nafarroako eliza-giroan ezin zen imajinatu gaur egiten diren gauzak euskaraz egitea. Gaur ari gara, eta hori gauza ederra da». X